

1. ARIKETA

X4ko abenduan "OLDMILENIUM, SA" enpresak ekitaldia itxi baino lehen zergaren aitortpenean erabilgarriak izango diren honako saldoak erakusten zituen bere Balantzean:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
(4745) Ekitaldiko Galerak konp. kreditua	325.000	(129) Ekitaldiko emaitzak (gordina)	2.000.000
(4740) Denb. Dif. Keng. aktiboa	65.000	(479) Denb. Dif. Zerg.ond. pasiboa	1.365.000
(473) OP, atxikipenak eta k.ord.	50.000		

1) Zergaren aitortpena egiteko honako informazioa bildu du (tasa = %32,5).

- X2tik aurrera *erantzukizunetarako horniduragatik* 100.000 euroko gastua islatu du, baina despoltsaketa ez da X5 urtera arte gertatuko.
- X0 hasieran makina berri bat erosi zuen eta hauek izan ziren aurreikusitako datuak: KH = 11.000.000€, HB = 500.000€, Bizitza Erabilgarria = 10 urte. Fiskalki %20 amortiza zitekeen urtero, eta horrela egin du zergaren aitortpenerako, balantzean ikus daitekeenez.
- Aurten saldu duen eraikuntza batengatik 500.000 euroko mozkin lortu du baina enpresa txikia izateagatik fiskalki guztiz salbuetsita dago.
- Aurreko urteetatik oinarri zergagarri negatiboek ematen dioten abantaila guztiz aprobetxatzen saiatzen da.

ESKATZEN DA:

- Mozkinaren gaineko zergaren kalkulua eta kontabilizazioa.
- Erabilitako kontuak X4-12-31ko Egoera Balantzean agertuko diren bezala erakutsi.

2) X5eko irailean, lurraldean burutzen dituen jardueren kopurua gainditu duenez, zergaren aitortpena foru arauaren menpe aurkeztu ordez, estatuko legea jarraituz egin beharko due eta zerga-tasa %32,5etik %35era aldatuko da..

ESKATZEN DA: Balantzean zituen zerga kontuak doitzeko beharrezkoak diren idazpenak egin.

2. ARIKETA

UGARTEBURU, SA enpresak 20X12-12-31n hurrengo saldoak erakusten zituen:

(210) Lurrak eta O.N.	200.000	(100) Kapital Soziala	400.000
(211) Eraikuntzak	105.900	(110) Akz. jaulkipeneko prima	40.000
(216) Altzariak	40.000	(112) Erreserba Legala	20.000
(121) Aurreko Em. negatiboak	5.000	(173) Epe luze Ibilg. Hornitz.	20.000
(572) Diruzaintza	234.000	(400) Hornitzaileak	4.000
(430) Bezeroak	5.000	(479) Denb. Dif. Zerg.ond. pasiboa	420
(4740) Denb. Dif. Keng.aktiboa	4.200	(291) Ibilg. Mat. Balio-narriadura	2.780
(4745) Ekitaldiko Galerak konpents. kreditua	2.100	(281) Ibilg. Mat. Am. Met.	20.000
(473) O.P., atx. eta kont. ordainketak	1.000	(113) Borond. erreserba	100.000
(300) Salgaiak	5.000	(129) Zerga aurreko mozkina	10.000
(200) I + G gastuak	15.000		

SALDO ZORDUNAK	617.200	S. HARTZEKODUNAK	617.200

ESKATZEN DA:

A.- Mozkinen gaineko zerga kalkulatu eta kontabilizatu, hurrengo datuak kontuan hartuta:

- 20X5/1/1ean enpresak 40.000 euroko altzariak erosi zituen. Hondar Balioa hutsa zen eta urtero %20an amortizatu izan dira, fiskalki ordea, urtean %10 baino ez da onartzen.
- Balantzean agertzen diren aurreko urteetako "denborazko diferentzia ezargarriengatik pasibo" guztiak konpentsatzen dira.
- Balantzean agertzen den aurreko urteetako galerak konpentsatzeko kreditu osoa konpentsatzen da.
- Emaitzaren kalkuluan, fiskalki kengarriak ez diren 1.000 euroko isunak sartu dira gastu bezala.
- Kenkariak eta hobariak: 300 euro.
- Zera-tasa: 35%.

B.- Kapital soziala 40.000 akzioz osatuta dagoela jakinik, Administrazio Kontseiluaren hurrengo proposamena kontabilizatu.

- Erreserba Legala legeak esandako gutxiengoan beteko dira.
- Akziodun guztiei ahalik eta dibidendu gehiena emango zaie.

3. ARIKETA

BIZKOR, SA enpresak X0-12-31n hurrengo Balantzea erakusten zuen, eurotan adierazita:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
I + G gastuak	15.000	Kapitala	250.000
		Bazk, galdatau gabeko despolts.	(37.500)
		Akzio jaulkipeneko prima	40.000
Ibilgetze Materiala	550.000	Erreserba Legala	30.000
- Ibilg. Materialen Am. Metatua	(50.000)	Borondatezko erreserba	100.000
Izakinak	45.000	Zerga aurreko mozkinak	15.500
		Erantzukizunetarako hornidura	45.000
- Salgaien balio-narriadura	(15.000)	Epe luzerako zorrak	95.000
Bezeroak	35.000	Denb dif ezarg pasiboa	24.500
Epe laburrerako kredituak	45.000	Hornitzaileak	34.000
Galerak konpentsatz. kred.	14.000	O.P. hartzekoduna, egind. Atxik.	4.000
O.P. atx. eta konturako ord.	2.500	Ibilgetu hornitzaileak	45.000
O.P.zordun, BEZgatik	5.000	Hainbat hartzekodun	20.000
Kobrantsa zalantz. bezeroak	150.000		
- Merk kred balio-narriadura	(150.000)		
Diruzaintza	19.000		
	-----		-----
GUZTIRA	665.500	GUZTIRA	665.500

ESKATZEN DA:

1.- Mozkinen gaineko zergaren kalkulua eta bere kontabilizazioa, hurrengo informazio hau kontuan hartuta (tasa %35):

- Enpresak 45.000 euro kontabilizatu ditu Erantzukizunetarako Hornidurarako gastu bezala, baina ez dira fiskalki kengarriak ekitaldi honetan, ez baitira behar bezala justifikatu.
- Balantzean agertzen den "Denborazko diferentzia ezargarriengatik pasiboa" Leasing eragiketa batek sortu du; enpresak aurreko urtean gauzatu zuen makineriaren erosketa aukera eta aurten elementu hori dela eta, 10.000 euroko amortizazioa islatu du, fiskalki aurreko ekitaldietan guztiz amortizatu zen arren.
- Kaudimengabezia dela eta 15.000 euroko narriadura-galera islatu du kontableki; Ogasun Publikoak aurten ordea, 12.000 euro baino ez ditu onartzen kontzeptu hau dela eta.
- Berandutza interesen gastu bezala 4.500 euro kontabilizatu ditu.
- Aurretik dituen Oinarri Zergagarri Negatiboak konpentsatzen saiatuko da.
- Elkarteak 7.000 euroko kenkariak lortu zituen.

2.- Bazkideen Batzar Orokorrean, Administrazio Kontseiluaren proposamenez Borondatezko Erreserben banaketa onartu da. Emaitzaren aplikazioa kontabilizatu kontuan izanik legearen murrizketak errespetatu ondoren geratzen den gutzia bazkideen artean banatuko dela.

Titulu bakoitzak jasoko duen zenbatekoa kalkulatu, kapitala 50.000 akzioz (hoietatik 40.000 akzio guztiz despoltsatuta) osatuta badago.